

## San Juan abestia

Gora San Juan, gora  
beti eta beti  
Gora San Juan,  
beti zaizut gogoan (bis)

..... Txistulariak.....

Entzun gizonak, entzun herria  
San Juanen dohain harrigarriak

Amagan zinela jaunak zizun deitu  
ordutik zintuen maitatu (bis)

Entzun gizonak, abestu herriak  
bere goitasun harrigarriak

.....Txistulariak.....

Gora San Juan, gora  
beti eta beti  
Gora San Juan,  
Beti zaitut gogoan.

## San Juan koplak

*Agur etxeko anai maiteok  
Gabon jainkoak diela,  
Legearekin kunpli dezagun  
Aita San Juanen bezpera.*

San Juan bezperan zenbait herritan  
Ikusten da su eta garra.  
Horren gartsua noiz izango du  
Gure Euskerak indarra.

*Agur etxeko...*

Amaran bizi garen guztiok  
Behar genuke axola,  
Denon laguntzaz hobetu dadin  
Amarako ikastola.

*Agur etxeko...*

Gaurko egunez, su eta kantaz  
Helburu bat jar dezagun:  
“Eguneroko lanaren bidez  
Amara auzo euskaldun”

## Gora San Juan

Berehalako batean gara San Juanetan, eta honekin batera, oroituko ditugu antzinako sua-pizte ohitura. Zeltiberoen garaian galtzen da ohitura honen arrastoa. Udako solstizioan ematen da, eta eguzkiaren posizioaren arabera egunik luzeena eta gaurik laburrena adierazten du.

Aintzinako ospakizun hau, gerora kristautua izan da “Doniane bezperako suak” delakora. Eta esan behar “Doniane” oso santu ospetsua izan dela Euskal Herrian hemen aurki daitezkeen eliza, ermitak, atsotitz kantur, siniskeriak eta gisakoak gogoan izaten baldin badira.

“Donibane”rekin oso lotuta daude mila sinbolu, esaldi, mito eta ohitura. Ezagunena “San Juan bezperako sua” da. Gaur egun ere indarrean dagoen ohitura. Gure antzinakoek larra, lasto eta zenbait zuhaitz adarrekin egiten zuten su-meta, tartean Erramu Egunean bedeinkatutako erenoitz edo erramu-adar bat jaurtikiaz. Ondoren, haren gainetik saltatzen zuten “atso nahiz agure, neskatxa nahiz mutil” esanez “ona barnera gaiztoa kanpora”. Beste lekutan hiru aldiz saltatzen zuten esanez lehenengo itzulia ematerakoan: “Biba San Juan Bautista”, bigarrenean “Biba Deun Pelaio eta San Pedro”, eta hirugarrenean: “Sarna fuera”. Baxenafarroan lehenengo, mutilek saltzen zuten, eta ondoren neskek.

Sua amaitzen zenean, harri zabal bat jarri ohi zuten su gainean. Uste zutenez, hurrengo goizean, harri hura mugitu eta San Juan hile txuriren bat aurkitzen zuena, seguru urte horretan ezkonduko omen zen.

Zuhaitzek ere zerikusi berezia dute “Donibaneko ohitura eta mitoen tartean. Garai batean “San Juan arbola” esaten zena eraikitzen zen herrietan”. Arbola” hori, hosto eta adarrik gabeko makala izaten zen. Zenbait lekutan “tantaia” deitzen zioten. Donibane egunean artzainek “elorri txuria” jasotzen omen zuten baserriari babes ematen ziolako ustetan. Euskal Herriko ustea izan da historian zehar “elorri txuriak” tximistaren kontra duen eragina.

Belar eta landareak ere izan dira ohiki solstizio erritoetan erabilitako elementuak. Oraintsu arte, ohitura zen San Juan egunez elizetara belar eta lore sortak eramatea, bertan bedeinkatuak izan zitezten. Ataunen adibidez, sorta hori milua, ezpata-belarra, krabelina eta margaritaz osatzen zuten. “San Juanen erramiletea” esaten zioten. Trumoi egunetan ezkaratzeko atean, teila baten gainean erretzen ziren lore-sorta horiek, haien errautsa tximistaren aurka balia zedin.

“DonianeEgun”ean, eguzkiak dantza egiten omen du. Hala diote Zegaman. Hasi egunsentian eta goiz erdira iritsi arte, alkizatarren ustez. Hura ikusi nahi duenak, mendi gailurrera igo behar du, zegamarren ustez, Aizkorriara.

Gaur egun egiten ditugun ospakizunak, antzinan oinarrituta egonik ere, inprobisazio gehiegi eta ohitura zaharren ahanztura adierazten dute. Suaren ospakizunak mereziko luke garai bateko bibentziak eta siniskeria gisakoaz osatzea. Zenbait lekutan, bestalde, kalejirak, koruak, eta San Juan dantzaz osatuta ospatzen da egun hau. Ikasbiden egiten diren “konjuroek” ohitura zahar horien zati bat dira. Zoragarriak dira txistularien kalejirak eta San Juanen zortzikoa dantzatzea, haren alboan koruak alboko letra kantatzen duen bitartean.

# SAN JUAN BEZPERA 2018KO EKAINAK 23



**IKASBIDE  
KULTUR  
ELKARTEA**

Isabel II, Hirib. 15 behea  
Tel. - Fax 943 457 107  
20011 DONOSTIA  
[www.ikasbidekultur-elkartea.com](http://www.ikasbidekultur-elkartea.com)